

herrera

Ur handiak Garbera aldean

herreran urak arazo larriak sortzen ditu oraindik, eta are gehiago Garbera merkatal zentrua eraikitzeak eragingo dituen ur ubideraketak kontuan hartzen baldin baditugu. Lau Haizeta koordinakundeak salatu duenez, Eroski eta Donostiako udaletxearen ur bideratze proiektua ez da egokia. Beren iritziz, proiektuan jasotzen den bezala, euriek eragindako ur jasak Herrera aldera bideratzen baldin badira, egun dagoen arazoari «*beste bat gehituko litzaioke*». Guztiok ditugu gogoan 1981-83 urteetan izandako uholde larriak, baina dirudienek, horiek ez dira kontuan hartuak izan.

Arazoa, koordinakundearen ustez, 10 urteko epea aztertuta egindako ikerketa desegokia da, normalean 50 urteko epea kontuan hartzen baita horrelako kasuetan. Lau Haizeta koordinakundeak Eroskik Garbera inguruan egin behar dituen ubideraketak Urumea aldera egin daitetzela eskatu du. Horrela egiten ez bada, Eroski eta Udala jo ditu «*Herreran gerta daitetzkeen uholdeen arduradun bakartzat*».

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

.....
Lau Haizeta koordinakundeak ubideraketa desegokiak egin nahi direla salatu du



Larunbatean, hilak 15, Korrika gure auzotik igaroko da. Hain zuzen, 12.30etan hasita Herrerratik Larratxorako bidea hartuko du lasterketak. Ondoren, Altza bisitatu eta Herrerratik Pasaiarako bidea hartuko du Korrikak.

altza

Irrati ikastaroak antolatu ditu Altzako Gaztelekuak, Altzako Irrati Tailerren bertan, martxotik ekainera bitartean. Asteazkenetan izango dira arratsaldeko 16.30etatik aurrera.

Ipuinaren orduak aurrera darrai Altzako eta Larratxoko liburutegietan.

Datorren ostiralean Larratxon «Printzesa eta pirata» entzun ahal izango ditugu eta hilaren 21ean «Amonatxo» etorriko zaigu arratsaldeko 18.00etatik aurrera.

Lehenbailehen izeneko plataforma eratu da auzoan, Koldo de Marcos, Tito Ostolaza eta Fernando

Arburua preso altxatarrak kaleratzearen alde. Elkarreko partaideen artean ditugu, Juantxo Koka pilotaria, Joan Mari Irigoien idazlea edo Roteta Kirol Elkarteko zuzendaria, besteak beste. Oraingoz plataformak jasotako erantzuna ona izan da eta dagoeneko 30 lagun inguratu dira lanerako prest.

Graphos

**Kartografian espezializatua
Mapak eta bidai-gidak**

Kale Nagusia 1, Donostia • 42 63 77